

Musikak batzen eta laguntzan gaitu konfinamendu garaian

► **Egilea:** María Amurrio, Asociación Cultural Musical "Marrate" Labastida.



Musika irakasgaia ikasketa-pla-netatik desagertzen den lehena den arren, etapa jakin batzue-tatik aurrera soilik irakasten den arren, eta neurozientziak musika ikasteak garunaren garapenari mesede egiten diola eta emai-tza akademikoak optimizatzen dituela bermatzen duen arren, hiltzorian dago musika irakasgaia.

Baina osasun-gerrak gutako bakoitza gure etxeetan konfina-tu duen egun hauetan, musikak hartu du garrantzi eta garran-tzi handiena. Dena da musika, errezitaldiak balkoietan, online kontzertuak, operak doan, erre-produkzio librean zerrendak ... Musikak, salbatzen gaitu, mun-duak birus madarikatu honen bi-dez bidali digunetik.

Egun hauetan esperientziak erakusten digun bezala, musikak pertsonen gaitasunak eta gizar-teratzea garatzen ditu, talde-

lana bultzatzen eta bermatzen du, sormena, aniztasuna eta kul-turaniztasuna sustatzen ditu ere. Horrela, eta egitatei helduta, musika auzoak, herriak, hiriak, probintziak, nazioak elkartzea lortzen ari da, bere gizarteratze-moduaren bidez hain hurbil eta aldi berean urrun genituen per-tsonekin hitz egitea lortzen ari da, beren gustuetan, beren kul-turetan, iritzietan pertsona ezber-dinen taldeak sortzea lortzen ari da, baina pertsona hauek guztiek helburu komun bat dute, elkarre-kin jo eta abestu, gizarterari oihu egiteko pandemia honetatik ba-tera aterako gara.

Bastidan, asko ari dira beren etxeetako, leihotako, lorategie-tako edo balkoietako txokoetatik gauero parte hartzen eta alaitzen dutenak, eguzkia desagertzen denean eta hain indartsu argi-tzen gaituen ilargi hori herabe-ki agertzen denean. Tronpetak,

saxofoiak, bonbardinoak, tubak, tronboiak, klarineteak eta txiru-lak bezalako instrumentuak, ma-letinetan lo zeudenak, hurrengo entsegura arte atseden hartzen, zorrotik atera dira eta beren me-lodiarik onenak zeruko eta lurre-ko kantuekin fintzen dituzte, au-zotarren ahots eta txaloekin.

Hemendik, eskerrak eman nahi dizkiegu Marrate Musika Ban-dako eta Bastidako Musika Esko-lako kide guztiei egun hauetan egiten ari diren adierazpen ar-tistiko eta adierazgarri honenga-tik, alarma- eta konfinamendu-egoera hau jasangarriagoa eta onargarriagoa izan dadin.

**ESKERRIK ASKO
BIHOTZ BIHOTZETIK**

Maskara ibiltariak

☛ Egilea: Bitartean Jolasean Elkarte.

Elkarrizketa honen helburua da mundu osoan pairatzen ari garen COVID-19aren pandemiaren aurrean bi aldiz pentsatu gabe euren burua eskaini duten eta material sanitarioaren faltari aurre egiteko dakiten guztia erabiltzen ari diren pertsona solidarioak ezagutaraztea.

Bitartean Jolasean Elkarte ko kideok harremanetan jarri ginen, telefonoz, Maite Etxanizekin. Maite Etxanizek, beste hainbeste emakume jostunekin batera, bere ezagutzak praktikan jarri ditu eta maskarak egiten ari da halakorik behar duten pertsona guztientzat.



izateko, nahi izanez gero. Hori dela eta, denbora behar dut bakoitza egiteko.

Elkarrizketa hau egin eta egun batzuetara, Maite Etxanizek jakinarazi zigun estatuko indarrentzat eta partikularrentzat maskarak egiten hasia zela.

Horrez gain, esan dezakegu maskara hauek ibiltariak direla; izan ere, herrialdeko hainbat tokitara iritsi dira: Madril, Palentzia, Bilbo, Bermeo, Logroño, Gasteiz...

Orain, beste erronka bat du: haurrentzako maskarak egitea.

Bitartean Jolasean Elkarte:
Zein da zure lanbidea?

Maite Etxaniz: Bastidako ikastetxe publikoko jantokian egiten dut lan; jaten ematen diet eta haiekin egoten naiz 15:00ak arte, ordu horretan izultzen baitira ikasgeletara.

Bitartean Jolasean Elkarte:
Nola ikasi zenuen josten?

Maite Etxaniz: 14 urterekin ikasi nuen josten. Bilboko akademia batera joaten nintzen, bertakoa bainaiz. Urte askoan ikasi nuen bertan, eta jantzigintza-irakasle titulua ateratu nuen. Dena den, txiki-txikitatik gustatu izan zait jostea, puntua egitea, kakorratz-lana, brodatzea eta joskintzarekin zerikusia duen guztia.

Bitartean Jolasean Elkarte:
Zerk bultzatu zintuen maskarak jostera?

Maite Etxaniz: Maskarak egitea erabaki nuen etengabe ari zirelako esaten faltan zeudela. Ez nuen bitan pentsatu eta lanari ekin nion.

Bitartean Jolasean Elkarte:
Nola lortzen dituzu materialak?

Maite Etxaniz: Hasieran, soberran nituen oihalkiak erabiltzen nituen, nik neuk egiten baitut nire arropa. Gero, herriko talde bati laguntza eskatu nion, Facebook bidez; maskarak egiteko zer oihala mota komeni zen esan nien eta berehala lagundu zidaten. Okindegian uzten zizkidaten; horixe zen niri materialak eta gomak helarazteko modua. Bide batez, goma metroka behar izan dut eta eskerrak eman nahi dizkiot herriko mertzeriari, goma zuria eta beltza uzten baitzidan okindegian baina, hain azkar bukatzen zitzaidanez, azkenean goma biribilki osoak uzten hasi behar izan zen, kar-kar. Bide batez, oso gutxi gelditzen zait.

Bitartean Jolasean Elkarte:
Zenbat maskara egin dituzu orain arte?

Maite Etxaniz: Laurehun baino gehiago egin ditut, eta maskarak egiten jarraitzen dut. Egiten ditudanek oihala bikoitza eta tolesak dituzte; gainera, irekita daude, iragazki bat jarri ahal

Bitartean Jolasean Elkarte:
Nori ematen ari zara maskarak?

Maite Etxaniz: Egoitza batzuei eman dizkiet, baita supermerkatu batzuei eta maskarak eskatu dizkidaten partikularrei ere; behar duten guztiei.

Bitartean Jolasean Elkarte:
Nola helarazten dizkiezu?

Maite Etxaniz: Nik neuk eramaten ditut. Sarreran uzten ditut, sartu gabe. Erabiltzeko prest eramaten ditut: garbituta, lisatuta eta paketatuta. Supermerkatuetan, berriz, erosketak egitera joaterakoan eramaten ditut. Partikularrei etxeko atean utzi dizkiet edo, bestela, okindegian, jaso ditzaten.

Espero dugu berriz ere elkartzeko aukera dugunean elkarrekin kafe bat hartu ahal izatea, elkar ezagutzeko eta buletin honetan parte hartu izana eskertzeko, ez soilik berari, baizik eta hau posible egiten duzuen pertsona guztiei.

Ez da eskolarik egongo bestela jakinarazi arte

■ Egilea: Bastidako eskola publikoa.

"Ez da eskolarik egongo bestela jakinarazi arte". Horrela hasi zen dena Bastidako eskola publikoko ikasleentzat. Martxoaren 8an, igandea, telefono-dei bat jaso genuen, eta jakinarazi ziguten klaseak bertan behera gelditu zirela aldi baterako. Handik gutxira hasi zen konfinamendua.

Egoera horrek ziurgabetasuna eragin zigun guztioi. "Klaseak eten dira" bai, baina ez hezkuntzarako eskubidea, eta ez edozein hezkuntza, baizik eta kalitatezkoa eta pertsona bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokitu dena, ekitatean eta aukeraber dintasunean oinarrituta. Ziurgabetasun horrek erronka bat dakar komunitate osoarentzat, bai irakasleentzat, bai ikasleentzat eta bai familientzat.

Orain, erritmoa hartuta eta egunero hobetzeko nahiarekin, ikasleak euren lan eta erronka akademikoetan murgilduta daudelarik, konfinamendua nola ari diren bizitzen kontatu digute.

"...Ondo dago etxean gelditzea birusak ez kontagiatzeko, baina aldi berean aspergarria da, ez baitugu inor ikusten. Lagunik gabe egotea, soilik familiarekin, apur bat monotonoa da. Lorategia duten etxetan bizi direnak egoera hobean daude, eta, pisu batean bizi direnentzat, egoera estugarriagoa da. Espero dut laster etxetik irtetea lagunak ikusteko." Hori da Oihanak, hirugarren zikloko ikasleak, kontatu diguna.

Bestalde, Enekok honako hau esan digu: "niretzat egoera hau jasanezina ari da izaten. Mugimendua behar dut, eta orain aspertu egiten naiz. Etxetik atera behar dut. Itota sentitzen naiz. Kalera irteteko, kirola egiteko eta mugitzeko beharra sentitzen dut. Etxean ere kirola egiten dut,



terrazza eta txoko bat ditudalako, baina ez da berdina..."

Aroak, Eneko eta Oihanaren ikaskideak, hau dio: "...ez zitzaidan gustatu etxean gelditzea, eta kezagarria iruditzen zitzaidan birusaren ondorioz jendea kontagiatzea eta hiltzea. Normaltasunera itzuli nahiko nuke, lagunak, irakasleak eta familia ikusi nahi baititut". Mota horretako iruzkinak jasotzen ditugu ia egunero banaka edo taldeko ikasleekin egiten ditugun bideo-deietan. Alderdi akademikoaz gain, funtsezkoa da haiek sentitzea gu hor gaudela behar dutenerako; jakin nahi dugu zelan dauden, eta, batez ere, laguntaldeen eta irakasleen berotasuna sentitu behar dute.

"Eguna jolasten igarotzen dugu, baina gauzak puskatzeko arriskurik ez duten jolasak gomendatzen ditut; adibidez, ezin dugu futboleko baloiarekin jolastu, telebista puskatzeko arriskua baitago. Lasai jolastu behar dugu, adibidez, partxisean", kontatu digu Yahyak, etxean denbora igarotzeari buruz.

"Arraroa da egun osoa familiarekin igarotzea. Azkenean, nekagarria da beti pertsona berdina ikustea; ikusi nahi ditut, baina baita pertsona gehiago ere, bestela, erabat asperga-

rria da." Hau gehitu du Yahyak: "uste dut normaltasunera itzultzean bi ordu irakurtzen emango ditudala, eta beste bi jolasean: ez dut horrenbeste denbora emango kalean".

Batzuek argi dakite zer egingo duten konfinamendua emaitzen denean. Hiartek hau dio: "bizikletan ibiltzera joango naiz lehengusuarekin". Yahyak, bestalde, hau esan du: "futboleko jolastuko naiz, eta zelaira joango naiz entrenatzera".

Bizitzen ari garen ezohiko egoerari buruzko hitzaldi labur baten ostean, jolas bat proposatu diegu: imajinatu behar dugu estralurtar bat iritsi dela Bastidara, eta hari egun hauetan etengabe entzuten ditugun hitzak azaldu behar dizkiogu, hala nola konfinamendua, koronabirusa eta alarma-egoera. Jarraian jaso ditugu erantzunak:

Konfinamendua:

- Ezin da etxetik irten.
- Jendeak arauak errespetatu behar ditu, bestela gainerakoak kontagiatu ditzakete, edo kartzela bezalako ondorioak izan.
- Etxean sartuta egotera behartzen nauena da.
- Etxean egotea, ateratzeko aukerarik gabe.
- Etxean sartuta egotea, inor ikusi edo ukitu gabe.

Koronabirusa:

- Birus bat, gaixotasun bat.
- Koronabirus izena jarri dioten birus bat, bere formagatik, baina haren benetako izena Covid-19 da.
- Birus baten familia da.
- Oraingo osabiderik ez duen birus bat.
- Gripearen antzekoa zirudien birus bat, baina orain jende asko hiltzen ari dena.

Alarma-egoera:

- Arau batzuk dira, gaixotasun kutsakor bat dagoelako. Oraingo ezin gara etxetik atera, ezta beste haurrekin elkartu ere; maskara jantzi behar da, soilik erosketak egiteko atera etxetik eta etxetik lana egiten saiatu.
- Jende asko gaixo dagoenean edo gerra bat dagoenean, etxean gelditu behar zara babespean egoteko.
- Esan nahi du arazo bat dagoela eta kezkatuta egon behar garela.
- Egoera berezia da, non beha-

rezkoa den arretaz eta kontu handiz ibiltzea.

- Guztioi ohartarazten digu birus bat dagoela eta jendea hiltzen ari dela.

Apirilaren 26an hasi ziren kaleratzen, paseatzera edo jolastera. Behingoz aire freskoa hartu ahal izan dute, eta enargiarekin itzuli dira geratzen zaigunari aurre egiteko. Ez dakigu ikasgeletara itzuliko garen ala ez, baina eskola-komunitate guztiak erronka hau gaindituko dugu.

Gogoratu

COVID-19 Arabako Errioxa Irratiaren programazio berezia

GOFeko Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak antolatuta, Arabako Errioxa Irratiarekin lankidetzan, **asteartero, goizeko 10:15etik 10:45era, 105,8 FMn**, familientzako prestakuntza-programa batzuk eskaintzen dira, egungo egoerara egokituak, Arabako Errioxa Irratiko podcast-aren bidez jarraitu ahal izango dituzuenak. Programa horietan, psikologoak eta hizlariak izango ditugu, eta une honetan interesgarriak izan daitezkeela uste dugu.

<http://arabakoerrioxa.eus/es/radio/podcast/162-escuela-de-familia>

Etiket ikasten

Bastidako Eskola Publikoan web gune bat sortu da berrogeialdi honetan familiei laguntzeko doako eta sarbide libreko hezkuntza baliabideak biltzeko. Kalitatezko materialekin, proposamenekin edo hausnarketekin hazten jarrai dezazuen animatzen zaituztegu.

<https://sites.google.com/bastidaeskola.com/sare/orri-nagusia-p%C3%A1gina-principal>


<https://sites.google.com/bastidaeskola.com/sare>

Familientzako laguntza emozionaleko programa

Isabel Martin buru duen IPACEko psikologo taldeak, laguntza emozionala eta laguntza psikologikoa emateko doako programa jarri du martxan behar duten familientzat. Whatsapp bidez edota 663 861 152 telefonoaren bidez jar daiteke harremanetan zerbitzu hori.



APOYO EMOCIONAL EXPRESS PARA AFRONTAR EL CORONAVIRUS



GRATUITO ONLINE 20 MIN.

ENVÍANOS WHATSAPP AL 663 861 152

KORONABIRUSA CORONAVIRUS

KRISI EGOERA HONETAN MARTXAN DAUDE INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ARRETA ZERBITZUAK

DURANTE LA CRISIS SIGUEN EN MARCHA LOS SERVICIOS DE ATENCIÓN A LAS MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU LLAMA, TE AYUDAREMOS

24 h

INFORMAZIOA ETA BESTE EDOZEIN LAGUNTZA PARA INFORMACIÓN Y CUALQUIER OTRO TIPO DE AYUDA

900 840 111

«112» SOS DEIAK

LARRIALDI BAT BADA SI ES UNA EMERGENCIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Laguntzaileak:

araba álava
foru aldundia diputación foral
Vital
FUNDACIÓN · FUNDACIOA

Sustatzaileak:

Ayuntamiento de Labastida

Bastidako Udala
Herriar Partaidetza Mahaia
Mesa de Participación Ciudadana

Editatu eta dinamizatzaileak:

Entrenanto Entrenante

Birtutean Jolasean

